

# getxoBerri

## / Nabarmentzekoak

- > Aurrerapauso bat gehiago hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko (2. or.)
- > Trafiko Isunak Izapidetzeko Bulegoa Aretara lekualdatu da (2. or.)
- > Getxoko I. Kirol Topaketa +60, Faduran (5. or.)



Getxo Itsas Huben  
IV. urteurrena:  
Barruko gehigarria

**Bilbao Bizkaia Harro.** Hilak 13,  
San Nikolas plazan, hainbat ekitaldi  
18:30etik aurrera.

**Getxoko Dantzaren Eguna.** Hilak 13, 14 eta  
15, herriko akademia eta dantza eskoletako  
ikasleen saioak, Muxikebarrin. Sarrera: 3€.

**A-  
GENDA**

## Entzuteko prozesua, hiri busaren proiektu pilotua herritarren beharrei erantzunez jaio dadin

Udalak herritarrei entzuteko prozesu bat jarriko du abian, ekainaren 9tik 22ra, udalerrri barruan bete gabeko garraio beharrak ezagutzeko, ondoren hiri autobus elektrikoaren proiektu pilotu bat abian jartzea erraztuko duena. Proiektu hori 2024-2027 Legegintzaldi Planaren barruan dago, eta Udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPK 2025eko Aurrekontua onartzea errazteko sinatutako akordio politikoaren emaitza da.

Getxoko herritarrek getxotarrak udalerriko zerbitzuekin eta beste garraio publiko batzuekin konektatuko dituen hiri autobus bati zer erabilera emango liokeen jakin nahi da, proba pilotua errealitatearekin ahalik eta leialen izan dadin eta behar jakin batzuei erantzunez jaio dadin, herritarrek beren ohiko mugikortasunean autobus hori bere egin dezaten.



### ENTZUTE MOTAK: EKAINAREN 9TIK 22RA

- 1) Kalean, Getxobus bat eta markesina bat ibiltariak jarritz. Herritarrek egunerokoan dituzten beharrak adierazi ahal izango dituzte.

Tokia	Egunak	Orduetgia
Fadura kiroldegia	9 eta 10	09:00 - 12:30 eta 16:30 - 19:30 h
Benta espazioaren ondoan	11 eta 12	
Algortako Geltokia plaza	13, 14 eta 15 (*)	
Gernika parkea	16	
Neguriko geltokia plaza	17	11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:30 h
Zubileta parkea	18	(*) Igandean goizez bakarrik
Aldapa parkea	19	
Areetako Geltokia plaza	20, 21 eta 22 (*)	

- 2) Enpresa espezializatu batek telefonoz egindako inkestaren bidez.
- 3) Online, ZEUGAZ plataformaren bidez ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)).

Entzuteko prozesuan hiru modutan parte hartu ahal izango da, ekainaren 9tik 22ra. Alde batetik, ibiltariak izango diren Getxobus bat eta markesina bat ezarriko dira udalerriko hainbat puntutan. Autobusak panel bat izango du, eta, bertan, hurbiltzen diren pertsonak zehaztu ahal izango dute autobusa udalerriko zein zerbitzutara iristea gustatuko litzaiekeen, bai eta beren egunerokoan dituzten garraio beharrak ere. Bestalde, enpresa espezializatu batek telefono bidezko inkesta bat egingo du eta iritzia ere online eman ahal izango da, ZEUGAZ plataformaren bidez, [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean.

Aste honetan biniloak jarri dira Getxoko hainbat tokitan, Getxobusaren proba pilotuaren entzuteko prozesuari buruzko kanpaina abiarazteko.

## Komun egokitu modular bat izango da berriro Ereagan hondartzetako denboraldian

Hondartzen denboraldian iaz egindako proba pilotuaren arrakastaren ondoren, Udalak aurten berriro Ereagako pasealekuan higiean laguntza-premia handiak edo konplexuak dituzten eta laguntzeko bi pertsonaren arteko beharra duten herritarrentzako komun egokitu modular bat jarri du.

Bere helburua da pertsona guztien duintasuna eta pribatutasuna errespetatzea; jardura pertsonalak egitea, hala nola pixoihalak aldatzea edo beste behar berezi batzuk egitea esperientzia deseroso eta lotsagarria ez izatea ziurtatzen baitu, komuna era erraz, autonomo eta duinean erabili ahal izateko beharrezkoak diren oinarriko tresnak erraztuz. "Joan den udan izandako harrera onaren ondoren, komun modular bat egokitu dugu berriro Ereagan, laguntza-premia handiak dituzten pertsonak ere hondartzaz erosotasunez, segurtasunez eta duintasunez gozatzeko pentsatua", na-



barmendu du Janire Ocio Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloko zinegotziak. Irailaren 30era erabili ahal izango den komuna 6 x 2,5 metroko modulu bat da, Ereagan Lagundutako Bainuaren Zerbitzuaren ondoan kokatuta, sartzeko arrapalarekin, eta altueran erregula daitezkeen ohatila bat, sabaiko garabi bat, dutxako eserleku bat, ostomizatutako pertsonentzako komun bat, eta altueran erregula daitezkeen konketa eta komunontzia ditu. Bere orduetgia 11:00etatik 20:00etara da eta sartzeko giltza Foru Aldundiaren lagundutako bainuaren Zerbitzuko eskatu beharko diete erabiltzaileek. Hain zuzen ere, modulua abian jarri da hondartza denboraldiarekin batera. Horren aurkezpena Ereagan egin zuen Foru Aldundiak eta bertan iragarri zuen aurten Bizkaiko hondartzetako dutxak eta megafonia modernizatuko direla, eta egunero ordubete luzatu dela lagundutako bainuaren programaren orduetgia (20:00ak arte).



## EKAINAK 5 OSTEGUNA

**Dantza. Getxo Eszena Irekia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Hustu, elogio al vacio". 8€.

**Udako Berbalaguna.** Izen ematea ekainaren 20ra arte udan jarduerak euskaraz egiten dituzten taldeetan parte hartzeko. Izenematea: [labur.eus/udako\\_berbalaguna](http://labur.eus/udako_berbalaguna). Informazioa: 619935541 / [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com)

## EKAINAK 6 OSTIRALA

**Argi gorriak hemokromatosia ikusarazteko.** Areetako kaia eta udal-igogailuak gorri argizatutako dira, gaixotasun horren inguruan arreta pizteko. Gaixotasun horren ezaugarria burdina pixkanaka kargatzea da.

**Pianoa kalean.** 16:30etik aurrera, Algortako Andrés Isasi Musika Eskolako sarrerako atarian (Muxikebarrin), Musika Eskola horretako pianoko ikasleek emanaldiak.

**Kontularien kluba. Denboraldiko azken saioa.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera. Gaia: "Cuentos mínimos" (gaztelaniaz).

**Kontzertua. "Organo & Polyphonia" zikloa.** 20:00etan, San Nikolas Barikoa parrokiari, Andrés Isasi eta Bleibet Abesbatzak, Patricia Sésar (sopranoa), Pedro Guallar (organista) eta Imanol Ormaza (zuzendaria). Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkarte-AMOMA. Sarrera doan.

**Kontzertua.** 19:00etan, Kristo Eroslearen parrokiari, "Luis Marianoren abestiak", Andoni Martínez de Barañano (tenorea) eta Mikel Gaztañaga (pianista). Sarrera doan.

**Getxophoto. Gaueko bisita.** Euskaraz. 21:30etan, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

**Kontzertua.** 20:00etan, Azebarri Kultur Elkartearen MARTIA (Joana & Andoni) JOXUNE (Joseba & June). Sarrera librea.

## EKAINAK 7 LARUNBATA

**Argi gorriak hemokromatosia ikusarazteko.** Areetako kaia eta udal-igogailuak gorri argizatutako dira, gaixotasun horren inguruan arreta pizteko. Gaixotasun horren ezaugarria burdina pixkanaka kargatzea da.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Señora Einstein" (gaztelaniaz), Teatro Defondorekin. 10€.

**Getxo Eszena Kalean. Dantza.** 18:30etan, Areetako Geltokia plazan, "Sincronías", Cia In Put konpainiarekin. Sarrera doan.

**Kontzertua.** 20:15ean, Hirutasunaren parrokiari (Algorta), Iraun (Plentzia), Gaztelumendi (Larrabetzu) eta Itxartu (Algorta) abesbatzen emanaldia. Sarrera doan.

**Getxophoto. Larunbatak erdigunetik.** Gaztelaniaz. 11:30etan, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. Hamaiketako. 11:30etan, Getxophotoren bulegoan (Amezi 6, 5º 5º), Ane Abalderekin (Kutxa Fundazioko erakusketaren aretoen zuzendaria). 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 8 IGANDEA

**Pailazoak.** 16:30etan eta 19:00etan, "Ostirala iritsi da!", Porrotx, Mari Motots, Pupu eta Lorrekin. 6€.

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30etan, Muxikebarrin, aurrealdean, Ekhi Lambert. Sarrera doan.

**Getxophoto. Igandeak hondartzatik.** Gaztelaniaz. 11:30etan, irteera Punta Begoña Galerietatik. 5€. Familian. 12:00etan, irteera Ereagako lorategietatik. Bisita gidatua eta umeentzako jarduerak Mon Sevillarekin. 4-10 urte. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 9 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El impacto del turismo en el modelo de desarrollo urbano. El caso de los pisos turísticos". Hitzalaria: Enrique Antolín (Soziologia irakaslea EHUn). Antolatzailea: Sinope kultur elkarte <https://sinopeblog.wordpress.com/>

## EKAINAK 11 ASTEAZKENA

**Aurkezpen literarioa.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Abrázame Bilbao" liburuaren aurkezpena (gaztelaniaz) Antton Bastero egilearekin.

## EKAINAK 13 OSTIRALA

**Bilbao Bizkaia Harro.** San Nikolas plazan, 18:30etan, pregoia. Ondoren Txikigune HARROKids, Lova Lois, Sin trampa ni autotune, Nawi eta, 21:30etan, DJ-a. <https://bilbaobizkaiaipride.com/>

**Getxotar Dantza Astea.** 19:00etan, Muxikebarrin, "Havana Dance". 3€.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Zorretan" (euskaraz), Hika Teatroarekin. 12€.

**Getxophoto. Gaueko bisita.** Gaztelaniaz. 21:30etan, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 14 LARUNBATA

**Berantzagi Dantza Taldearen 60. urteurrena.** 3. Orrialdea ikusi.

**Getxotar Dantza Astea.** Muxikebarrin, 11:00etan, Allegro Ballet Studio; 16:30etan, Estudio de Danza Porté eta 19:00etan, Dantzarte. 3€.

**Dantza plaza. Denboraldiaren amaiera.** 19:00etan, Areetako Eskoletako plazan, erromeria udalerriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Getxo Eszena Kalean. Dantza.** 18:30etan, Areetako Geltokia plazan, "Haurreskolari", Tio Seronen semeak konpainiarekin. Sarrera doan.

**Getxophoto. Larunbatak erdigunetik.** Gaztelaniaz. 11:30etan, irteera InfoGuneetik-Algortako Azoka. 5€. Hamaiketako. 11:30etan, Getxophotoren bulegoan (Amezi 6, 5º 5º), María Azkarate (arkitektoa eta argazkilaria). 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## EKAINAK 15 IGANDEA

**Getxotar Dantza Astea.** Muxikebarrin, 11:00etan, Estudio de Ballet Carmen Vera; 12:30etan, Vivó la Danse Studio; 16:30etan, Utopian eta 18:30etan, Ana Lara Dantza Eskola. 3€.

**Kontzertua. Kristalezko kioskoa.** 13:30etan, Muxikebarrin, aurrealdean, Markos Untzeta. Sarrera doan.

**Getxophoto. Igandeak hondartzatik.** Euskaraz. 11:30etan, irteera Punta Begoña Galerietatik. 5€. [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

# Aurrerapauso bat gehiago hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko

Talde politiko guztien aldeko botoekin (PPrena izan ezik, abstenitu egin baitzen), maiatzeko ohiko bilkuran onetsi egin zuten EH-Bilduk sustatu zuen mozio bat. EAJ/PNVk eta PSE-EEK transakzionatu egin zuten, eta azkenean onartutakoaren arabera, 9 hilabeteko epean, hutsik edo jenderik gabe diren etxebizitzei buruzko azterlana eguneratu egingo da Euskadiko Etxebizitza Legearen aurreikuspenekin bat etorriz. Geroago, gobernuak prozedura bat hasteko konpromisoa hartu du egoera horren arrazoiak ezagutzeko. Eta gainera, hutsik dauden etxeen jabeei, Udalak, Eusko Jaurlaritzak edo bestelako administrazioek eskuragarri jarri dituzten neurrien informazioa emango zaie, etxebizitzak ekimen publikoen birtatez alokatzeko moduan jar ditzaten.

Errolda eguneratu eta gero eta hutsik dauden etxeak ez erabiltzeko arrazoiak egiaztatu ondoren, Euskadiko Etxebizitza Legea aplikatuko da hutsik dauden etxebizitzak adierazpenaren baldintzetan eta berme juridiko guztiekin. Horrekin lotuta, Álvaro González hirigintza-plangintzako zinegotziak hau esan du: "asmoa araudia orekatuta eta zorrotz aplikatzea izango da, jabetza pribatuaren eskubidea eta bere gizarte-funtzioa errespetatzea, eta kontuan hartzea etxeak hutsik egotearen askotariko arrazoiak (hainbat arra-



zoi nahi gabekoak dira). Kasu bakoitzaren konplexutasuna abiapuntutzat hartuko dugu eta irtenbide errealek bilatuko ditugu".

## Martiturri

Beste alde batetik, udal-gobernuak (EAJ/PNVk eta PSE-EEK) eta PPK alde bozkatuta, EH-Bildu abstenituta eta Elkarrekin Podemos aurka bozkatuta, onetsi egin zen Bizkaiko Foru Aldundiak egindako eskaria egungo BI-3737 foru-errepidearen tartea (Ormaza biribilguneetik Berangoko mugaraino) eta Plentziara doan BI-3737 errepide zaharreko emateko.

Eskari hori egin dute Hiri Antolamendurako Plan Orokorra -HAPO- osatzeko eta Martiturriko enpresa-parkea garatzeko. Aurreikusitako bertan balio-erantsi handiko enpresak instalatuko direla Getxon kalitatezko enplegu erakargarria sortuz, 2024-2027 Legegintzaldi Planean jasota dagoen arabera.

## Beste mozio batzuk

Horrez gain, beste hiru mozio onartu ziren. Aho batez onartu zuten Elkarrekin Podemosen proposamena, eta EAJk eta PSE-EEK transakzionatu zutena, Getxon ga-

ratzen diren hiri-udalekuen (udal-arloen ekimenez edo udalarekin lankidetzan aritzen diren erakundeek ekimenez antolatzen direnak) eskaintza osoaren informazioarako sarbidea bateratzeko, udalaren webgunean eta Getxoberri-n sarbide espezi-fiko bat eginez; eta inskripzioarako izapideak bateratzearen eta erraztearen alde lan egingo da.

Eta gainera, PPren aldeko botoekin bakarrik (beste taldeak abstenitu egin ziren), popularrek planteatutako bi moziari oniritzia eman zitzaion: lehenengoa, nagusientzat edo mugikortasun funtzionala dutenentzat egokitutako bizikleta-zerbitzua sortzea aztertzeko (taldeko aisialdi-programekin) eta, bestea, udalerriko kaleetako eta plazetako seinaleak hobetzeko neurriak ezartzeko.

Betalde, ez zen onartu EH-Bilduk Palestinarekin elkartasuna adierazteko, Israelen genozidioa bukatzea aldarrikatzeko eta Metro Bilbaok Israelgo segurtasun-enpresa baten kontratazioa indargabetzeko aurkeztu zuen mozioa, baina hala ere, Palestinako egoera oso presente egon zen osoko bilkuraren eztabaidan.

EAJ/PNV eta PSE-EE mozioaren lehen zatien alde agertu ziren eta irmoki kondenatu zuten Israel Gazan egiten ari den justifikaziorik gabeko eraso militarra. Era berean, indarkeria berehala bukatzeko eskatu zuten, baina esan zuten juridikoki ez dela bideragarria kontratu bat indargabetzea planteatzea "Metro Bilbao, erakunde publikoa den heinean, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari atxikita baitago".

PPk ez zuen iritzirik eman gai horren inguruan eta esku-hartzean bakarrik "EH-Bilduk babestutako ETaren genozidioa" aipatu zuen. EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosen esan zuten zerbait egin daitekeela eta uste bada kontratua ez dela onargarria, suntsitzen saiatzeko ahalegina egin daitekeela.



## Trafiko Isunak Izapidetzeko Bulegoa Areetara lekualdatu da

Trafiko isunak izapidetzeko bulegoa Algortatik Areetako Andrés Larrazabal kaleko 10. zenbakian dagoen toki berrira aldatu da. Jendaurreko ordutegia ohikoa izango da: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 13:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Asteazkenetan ere, 16:30etik 19:30era. Udan, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, aldatu egingo da: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.



## “Auzotarren mosaikoa” horma-artearen ondarearen parte da jada

Ibaigane kaleko 3 eta 5 zenbakietako fatxadetan, Areetako Geltokia plazaren ondoan, amaitu berri den *Auzotarren mosaikoa* horma-obra ikus daiteke. Lan hau, Giorgos Gkareth Christou eta Lisbeth Montoya Ramalloren lana, Miren Larrea Muralismo Sariaren lehen edizioaren proiektu irabazlea izan zen, Getxo Kulturak udalerrian horma-artearen ondare bat sortzeko bultzatu zuena.

Mural horren helburua plaza horretako elementu nabarmenak indartzea da, eta, aldi be-

rean, inguruko hainbat lekuren erreferentziak islatzea, hala nola Romoko *Etxe Merkeak* bezala ezagutzen direnak. Horrekin batera, Josemi Ibarretxe artista omendu nahi da, hainbat hamarkadatan fatxada okupatu zuen *Xakea* obraren sortzailea.

Prozesu hori herritarrengana hurbiltzeko asmoz, sormen taldeak bitartekaritza prozesu bat garatuko du ostegun eta ostiral honetan, ekainaren 5ean eta 6an, paseo gisa planteatutako bisita gidatuetan oinarrituta.

## “Ostirala iritsi da!” Porrotx, Mari Motots, Pupu eta Loreren eskutik

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore Muxikebarrira itzuliko dira haurrekin elkartzeko. Izan ere, pailazoek igandean, ekainak 8, 16:30etan eta 19:00etan, *Ostirala iritsi da!* ikuskizuna eskainiko dute, Txapas irakaslearekin batera ikusitakoa erakusteko.

Antzerkia jolas, abesti, bihurrikaria eta barre festa izango da. Magia ukitu batekin, basoa eta kutxa sekretuak ospakizun baten erdi-

## Areetan “Sincronias” dantza saioa

In Put konpainia getxotarrak *Sincronías* lana aurkeztuko du larunbatean, hilak 7, 18:30ean Areetako Geltokia plazan, Getxo Eszena kalean egitarauaren barruan. Muntaiak dantza garaikideko hiru piezaren bidaia proposatzen du. Lehenengoak inperfekzioaz hitz egiten du, saiakeraren eta errorearen arteko bidez. Bi gorputzen arteko bikote batekin jarraitzen du eta askatu ezin duen telefono bati itsatsitako pertsona baten istorioarekin amaitzen da. Sarrera doakoa da.

gune bihurtuko dira emanaldian, eta bertan energia kutsakorrek eta dibertimenduak ez dute mugarik. Alaitasun eta fantasiatzko zurrumbiloba izango da. Sarreraren prezioa 6 eurokoa da.



### Berantzagi Dantza Taldearen 60garren urteurrena

Areetako Berantzagi dantza taldeak 60 urte bete ditu Covid eta pandemiatik bizirik atera ondoren, eta horrek dantzariak taldetik urruntzea ekarri zuen, baita Jose Antonio Sellán *Txato* taldearen arima eta gorputzaren heriotza ere. Gaur egun, presidentea haren emaztea a, Teresa Elvira, eta, zuzendaritzaren laguntzarekin, Berantzagiren funtsari eutsi dio. Saioen buru Saioa Salinas eta Edurne Ponce daude. Prestakuntza, gehienbat, gure kultura bizirik mantendu nahi duten emakume helduek eta kultura ezagutzen hasi diren haurrek osatzen dute. Ekitaldiak antolatzen eta laguntzen jarraitzen dute (inauteriak, Olentzero, Dantza plaza...) eta taldea nahi dutenentzat zabalik dago, adin mugarik gabe. 60 urte bete dituztela ospatzeko, oroimenezko programa bat antolatu dute larunbatean, hilak 14, 11:00etan erromeria batekin, artisautza erakusketa batekin eta haurrentzako tailerrekin, Eskoletako plazan; 12:00etan, aureskua eta kalejira Bizkaia Zubitik Agurraren erraldoi eta buruhandiekin; 15:00etan, herri bazkaria, eta 19:00etan, dantza plaza eta Zuzterrak taldearen emanaldia. Urte askoan bizi bedi Berantzagi!

## Getxoarte beken hiru proiektuak hautatuta

Sonia Bouso, Eider Moreno eta María Aztiria sortzaileek aurkeztutako hiru ikerketa-proiektu aukeratuak izan dira Getxoarte Egoitza Beken seigarren edizioan. Horietako bakoitzak 5.000 euro jasoko ditu uztailaren 7ra arte Romo Kultur Etxean egingo duten ikerketa egiteko. Lana amaitutakoan, hiru proiektuetako bat aukeratu dute, ekoizteko eta zentro bereko erakusketa-aretoan erakusteko, azaroan zehar. Horretarako, 10.000 euroko zuzkidura bideratuko da.

Sonia Bousoren *Cartografías de lo ausente* lanak Getxoko ondare natural eta geologikoari buruzko hainbat esku-hartze artistiko iragankor egitea planteatzen du, eta horiek ondoren islatuko liriteke argazki-lan batzuen bidez. Eider Morenoren *Apurtu* argazki-



-proiektuak 70-80ko hamarkadetan Lemoizko zentral nuklearrak sortu zuen gatazka sozialean sakontzea du helburu, eta, azkenik, Maria Aztiriaren *Elkarbizitzarako moduak* izeneko proposamenak, forma geometrikoetan eta kolorean oinarrituta, nahasketa horri balioa eman nahi dio, tokiko nor-tasunaren funtsezko zati gisa. Informazio gehiago: <https://labur.eus/2hknd7xw>

## “Señora Einstein”, Mileva Maricen ahots isilduaren kontakizuna

Teatro Defondo taldeak *Señora Einstein* antzezpena ekarriko du larunbat honetan, ekainaren 7an, 20:00etan, Muxikebarrira.



Estatu mailan bederatzi sari jaso dituen muntaia honek Mileva Maric zientzialari, matematikari eta Erlatibitatearen Teoriaren sortzaileetako baten bizitza kontatzen du. Bere istorioa bigarren tokian geratu zen, Albert Einsteinen emazte gisa, eta lanak zientziari eskainitako bizitza berreskuratzen du, emakume eta ama izateak bere ibilbide oparoa

eten zuen arte. Antzezlanak maisutasunez deskribatzen du isilarazitako emakume ugariaren istorioak, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako gizartearen bere ahalmenak garatzeko asmoa izan zuen zientzialari baten zailtasunen bidez. Sarrera: 10 euro.

## Ekhi Lambertek “Inbasioak” aurkeztuko du

Ekhi Lambertek, Irulegiko konpositore eta kantautoreak, igandean, ekainak 8, Muxikebarriko kanpoaldean izango da, Kristalezko Kioskoaren egitarauaren barruan.



Doako emanaldi batean, *Inbasioak* bakarkako bigarren diskoaren abestiak joko ditu, eszenatokiaren gaineko kantuari eta poesiari lehentasuna emanaz. Euskal kantuararen haritik, lan heterogeneoa da, bazterrez eta paisaiatz betea.

Asteburu honetan ere, beste musika-emanaldi batzuk izango dira udalerriko hainbat tokitan (informazioa agendan).



Darío Regoyoseko errotonda, Negurin

## Getxo kolore berria hartzen ari da udaberriko lore aldaketarekin

Maiatzeko hilabete guztietan bezala, Udala udaberriko sasoiko lorea aldatzen ari da. Lanak pasa den astean hasi ziren, eta 959 m<sup>2</sup>-ko loredun azalera egiten ari dira: berdeguneak, lorezainak, biribilguneak eta irlatxoak.

2.212 lore-tepe unitate landatuko dira 744 m<sup>2</sup>-ko azalera batean, hainbat espezie-barrietarekin, hala nola impatiens (alegria), begonia, zinia, basa-margarita edo krabelina. *“Aurten ere, Udala udaberri-udakoa bezalako aldaketa bat baino gehiago onartzen duten espezieak sartzen saiatzen da, klima aldaketaren aurrean erresilienteak izaten saiatuz eta lore horien iraunkortasuna handituz”*, azpimarratu du Iñigo Urkitza Ingurumen Unitateko zinegotziak.

Lorea aldatzeko lekuak ia udalerri osoan zehar sakabanatuta daude. **Romo-Areetan**, Eduardo Coste, Las Mercedes, Bidebarrieta, Errekagane, Ganeta eta Kresaltzu kaleak; Bizkaia Zubia eta Geltokia plazak; Santa Anako baseliza; López Osés-Gobela kiroldegiko biribilgunea; eta Musika Eskolako irlatxoak. **Neguri-Algortan**, Arriluze aldea, San Inazio, Telletxe, J.B. Zabala, Torreña, Basagoiti eta Algorta etorbideak; M<sup>a</sup> Cristina parkea; Darío Regoyos, Foruak, Euskal Herria, Leioa etorb., Talaieta, Salaidu, Bidezabal, Sarrikobaso eta Venancios. **Andra Marin**, Ormaza eta Maidagan eta Peña Sta. Marinako biribilguneak. Eta, azkenik, Avanzada ere.

### Zuhaitzen aldatzea

2024-2025 aldian, udalerrian zehar 207 zuhaitz aldatu dira, gehienak lehor geratu direlako, eta horien ordeztu beste batzuk jarri dira. Platanondo, ezki, makal, akazia eta prunus aleak kendu dira, besteak beste, eta, horien ordeztu, udare (pyrus), astigar, la-

gunaria, prunus edo likidanbar barietateak landatu dira.

*“Landatutako aleetatik espezie autoktonoak eta espezie egokiak konbinatu dira, beren barietateagatik, portaeragatik eta hiri-bilberako kromatismoagatik”*, zehaztu du Urkitzak.

### Zuhaitzak identifikatzeko plaka

Bestalde, Udalak zuhaitzak identifikatzeko 240 plaka berri jarriko ditu udalerriko parke eta plazetan, espezie eta ale desberdinei buruzko pedagogia egiteko.

Plaka horiek zuhaitzaren oinean jartzen dira, eta zuhaitz bakoitzaren espeziearen izena eta zuhaitz bakoitzaren izen zientifikoa adierazten dira. Gainera, ekintza bandalikoen ondorioz kalteku diren plakak berriro jarriko dira. Gaur egun, 217 unitatek dute identifikazio-plaka bat udalerrian.

Plakak jarri ondoren, gida bat argitaratuko da, non kokalekuak eta familien arabera identifikatutako aleak, horien izaera eta abar jasoko diren.



## Eskolako Agenda 2030eko urteko Foroa egin da

Eskolako Agenda 2030 programan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleek ikasturtean 15. Garapen Jasangarriaren Helburuaren (Lurreko Ekosistema Bizitza) inguruan egindako lanaren emaitzak aurkeztu dizkiote aste honetan Udalari. Eskola Foroa osoko bilkuren aretoan egin zuten eta bertan izan ziren Amaia Aguirre alkatea eta Iñigo Urkitza Ingurumen Zerbitzuko zinegotzia. Horiei, hartu dituzten konpromisoak aurkeztu zizkieten ikasleek, hala nola teknologia-klaseak aprobetxatzea hegaztientzako etxetxoak eta bestelako babeslekuak eraiki eta ingurunean jartzeko; hamaiketakoak tupperretan eramatea klasera hainbeste hondakin ez sortzeko; eta Azkorriko pinudia bezalako gune naturaletan garbiketarako antolatzea.

Era berean, hobetzeko proposamen batzuk aurkeztu zituzten, besteak beste, liztor asiarraren aurka borrokatzea, txakurrak aske egon daitezkeen parke naturalizatuetako eremuak mugatzea edo parke eta berdeguneetan narrasti eta ugaztun txikiak babesteko jartzea. Azkenik, datorren ikasturtean batera egingo duten ekintza eraldatzailea azaldu zuten: anfibioentzako putzu bat eraikiko dute aldeztu ondorekin eta espezie inbaditzaileek garbituko duten eremu batean.

## Tailer bikoitza tximeletei buruz, ekainaren 14an

Udal Ingurumeneko Unitateak eguneko eta gaueko tximeletei buruzko landa-eremuko bi tailer antolatuko ditu hilaren 14an, larunbata, adin guztiei zuzenduta.

Eguneko tximeletak aztertzeko eta ezagutzeko irteera 11:00etatik 14:00etara egingo da, oraindik erabaki gabe dagoen leku batean. Gaueko tailerra Ingurumen Aretoaren inguruan edo zehazteke dagoen beste leku batean egingo da, ilunabarrean. Sitsak aztertu ahal izateko, argi tranpa batzuk jarriko dira, intsektu horiek erakartzen saiatzeko. Bi tailerretan, haute-mandako aleak sailkatu eta identifikatuko dira, eta haien biologiari, taxonomiari eta hainbat bitxikeriari buruzko xehetasunak azalduko dira. Irteeretan, sortzen diren Getxoko biodibertsitatearen beste alderdi batzuk ere landuko dira. Tailer horiek Fernando Jubete entomologo eta naturalista adituak emango ditu, BOLUE Ingurumen Ikerketak enpresako Xabi Buentearekin batera.

*Tximeletak ezagutzeko* tailerretara joateko, ezinbestekoa da aldeztu aurretik izena ematea, posta elektronikoz bidez, ohiko helbide honetara: [boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com), egin nahi den tailerra adieraziz (biak egiteko aukera ere bada).

## Basoko loreei buruzko argazki lehiaketa

Ingurumen Aretoak basoko loreei buruzko argazki lehiaketan parte hartzera gonbidatzen ditu 16 urtetik gorako pertsona guztiak. Ekaina osoan zehar egingo da.

Lehiaketa honen helburua da Getxoko ingurune naturalean hazten diren basoko loreen edertasuna eta dibertsitatea nabarmentzea. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, udalerrin barruan ateratakoak. Halaber, parte hartzeko, interesa dutenek beren irudiak bidali beharko dituzte, honako informazio honekin batera: izen-abizenak, harremanetarako telefono zenbakia eta argazki bakoitza atera den Getxoko gune espezifikoaren argazkiak jasotzeko epea hilaren 30era arte egongo da zabalik. Horrela, irabazlea uztailera lehen astean iragarriko da, eta sari gisa produktu ekologikoen saski bat jasoko du.

Informazio gehiagorako eta argazkiak bidaltzeko: tel.: 688883596 edo [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)



Jai giroan ospatuko da jardunaldia eta hainbat kirol-modalitate dohainik praktikatu ahal izango dira

## Getxoko I. Kirol Topaketa +60, Faduran

Getxo Kirolak-ek 60 urtetik gorako pertsona guztiei zuzendutako kirol topaketa bat antolatu du Fadurako kiroldegian, ekainaren 20an, ostirala. Getxoko I. Kirol Topaketa +60ren helburuetako bat jarduera fisikoaz sentsibilizatzea eta horretaz gozatzea da, zainketarako, osasun fisiko eta mentalerako eta sozializatorako funtsezko tresna baita. Ekitaldiak hainbat kirol-modalitate praktikatzeko aukera eskainiko du, jai giroko testuinguru batean. Horren bidez, pertsona nagusi aktibo guztiak ikusarazi eta aintzatetsi nahi dira,

eta oraindik jarduera fisikorik egin ez dutenak jarduera fisikora hurbildu ere bai.

Ekitaldia 10:00etan hasiko da TikiToki Zentro berrian ongietorria egiteko antolatuko den aurkezpenarekin, eta taldean ibiliz iritsi nahi dutenek 9:00etan Gobelako kiroldegitik edo Algortako Geltokia plazatik aterako diren martxekin bat egin ahal izango dute. Faduran, gimnasia, pilates, yoga, indar-entrenamendua, aquagym, igeriketa, mahai-tenisa, txirrindularitza eta padel saioetan parte

hartzeko aukera izango dute. Eta parte-hartzaile bakoitzak bi proposamenetan eman ahal izango du izena. Lehenengo kirol topaketa hau TikiToki Zentroan amaituko da berriz ere 13:00etatik aurrera ospatuko den jaiarekin.

Jarduera guztiak doakoak dira eta interesa dutenek informazio gehiago jaso dezakete 747 439 545 telefonoaren bidez, Fadura eta Gobelako jendearen arretarako bulegoetan edo [atencionalclientegk@getxo.eus](mailto:atencionalclientegk@getxo.eus) helbide elektronikoen bidez.


## Maiatza, gurutzaldien hilerik onena: 18 geldialdi

Maiatza da aurten gurutzaontzien geldialdi gehien jaso duen hila-betea Bilboko Portuko Getxoko terminalean: 18 gurutzaontzi, barruan 18.000 turista baino gehiagorekin. Denboraldia hasi zenez, martxoan, 25 gurutzaontzi eta 32.643 bidaiari jaso dira, eta abenduan 90 geldialdi baino gehiagorekin amaitzea espero da.

Lehen bost hilabete hauetan, bostek gaua egin dute eta hiru lehen-dabiziz iritsi dira. Gainera, apirilaren 23an *MSC Poesía* porturatu zen, Getxon bidaiariak ontziratzen dituzten hiru gurutzaontzietako lehena. Hurrengoak uztailan eta irailean iritsiko dira.

## Bela: XL Bizkaiko Txapelketa

Abran jokatu da larunbatean eta igandean, hilak 7 eta 8, Bizkaiko XL. Kurtzero eta J80 Txapelketa, Kantauriko bela estropadarik ospetsuenetako bat. Euskal Herriko, Kantabriako eta Asturiasko 30 ontzi inguru lehiatuko dira, lurretik jarraitu ahal izango den proba batean; izan ere, haizearen baldintzen arabera, estropada eremua kostaldetik ahalik eta gertuen kokatu da, Galearen aurrean, hain zuzen, eta helmuga barruko uretan egongo da.



## Proiektzioa eta hitzaldia Alex Txikonekin, Muxikebarrin

Neguko espedizioak Nanga Parbatera eta Manaslura da Alex Txikon alpinista lemoarrak datorren asteartean, hilak 10, 19:00etatik aurrera Muxikebarriko Arrigunaga aretoan eskainiko duen proiektzioaren eta ondorengo hitzaldiaren izenburua. Ekitaldia, hain zuzen ere, Etorkizuna Mendi Taldeak antolatu du, Klubaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako egitaraua dela eta. Sarrera librea da, lekuak bete arte.

Alex Txikon 30 espediziotan baino gehiagotan partaide izan da eta 14 zor-zimilakoetatik 11tan gailurra egin du. Azken hamarkadan, bere ahaleginak Himalaiara egin dituen neguko espedizioetara bideratu ditu. Garrantzi handikoa da Nanga Parbateko lehen tontorra (8.126 m) lortzeko egin zuen balentria eta Manasluko igoera (8.163 m). Bi kasuetan, neguko espedizio hutsetan eta oxigeno artifizialaren laguntzarik gabe.



## 21 kirol-campus 16 modalitatetan uda honetan

Getxoko kirol klubek 21 campus antolatu dituzte udarako, honako modalitate hauetan: gimnastika erritmikoa, txirrindularitza, saskibaloia, atletismoa, errugbia, futbola, irristaketa, igeriketa, xakea, kirol egokitua, eskubaloia, patinen hockeya, irristaketa artistikoa, mahai-tenisa, bela eta arrauna.

Campus horiek Getxo Kirolak udal erakundearekin batera sustatzen dira. Eskolatan oporraldia dela baliatuz antolatzen dira eta, nagusiki, funtsezko bi helburu dituzte: batetik, kirola eta aisialdi osasungarria sustatu nahi dute, eta, bestetik, familia getxotarrei lana eta denbora librea uztartzea erraztuko dieten alternatibak eskaini nahi dizkiete.

Kirol jarduera horietan parte hartzeko interesa dutenek Getxo Kirolak-en webgunearen orrialdean kontsulta dezakete jardueren informazio zehatza: <https://labur.eus/givpi8ip>

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, ETXEBIZITZA PUBLIKO GEHIAGO

Getxoko EAJ-PNVk etxebizitza publikoaren eskaintza eguneratzeko eta XXI. mende honetako beharretara egokitzeko duen konpromisoa errealitate argia eta sendoa da.

Berriro ere alokairuko etxebizitza publikoaren proposamen bat aurkezten dugu, eta proposamen hori, gehienbat, etapa eta bizi-proiektu berriari hasiera ematen dioten une horretan dauden gazteentzat izango da.

Urtebete baino lehen, dagoeneko Iturri-barrin amaitzen ari diren alokairurako 58 etxebizitzak entregatuko dira. Azken txanpan sartu dira, halaber, Urduñako Mendatearen/Maidagango 68ak eta Venancioko 54ak. Konpromisoa egi bihurtuko delako, horretarako izapidetzeko eta eraikitzeko denbora behar izan arren. Errealitatea ezin daiteke ezkutatu:

hilabete gutxiren buruan 180 etxebizitza egongo dira alokairuan gazteentzat, bai eta bizitegi-eskaintzako sistema berriak behar dituzten familientzat ere. Pertsona eta familia gazte horiek dira eta izango dira Getxoko oraina eta Getxoko etorkizuna eraikiko dutenak. Haiek jarraituko dute Getxo herri bilakatzen: bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko hiria.

Denbora gutxian iritsiko da HAPOren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren, behin betiko onarpena. Hirigintza-tresna bat, Getxo hori nolakoa izan behar duen antolatzen duen irudia, etorkizunean noraino hazi eta garatu ahal izango den zehazteko. Hazkundera jasangarria izateko pentsatutako HAPOa, hirigintzari dagokionez baina baita ekonomiari eta gizarteari dagokionez ere. Etxebizitza publikoa sortzea erraztuko duen HAPOa, nahitaez publikoa izango den etxebizitza berriaren bi herenekin

eta Getxorako enplegua eta aberastasuna sortzeko 140.000 metro koadroekin; Martituri parke industrialia, balio erantsiko enpresek Getxo ekonomia berriaren mapan jartzea eta getxotarrek Getxon lan egiteko aukera izatea bermatuko diguna.

Hilabete batzuen buruan, oso bide garrantzitsua izango dugu zabalik; bide horrek aukera emango digu babes publikoko etxebizitza-ereduetan aurrera egiten jarraitzeko, orain bai hobeto eta arinago, alternatiba egokiak eta eskuragarriak eskainiz, gure gazteen emantzipazioa erraztuz, edo Getxotik alde egin behar izan zutenek itzultzeko aukera izan dezaten. Eta bizitzeaz gain, Getxon lan egiteko eta gozatzeko aukera izatea.

Getxoko EAJ-PNVk konpromiso horiek betetzen ditu, lanarekin, zorrotasunarekin eta erantzukizunarekin.



## MUGIKORTASUN INKLUSIBOAREKIN KONPROMETITUAK GETXON

Joan den maiatzaren 29ko Udalbatzan gainerako alderdiak abstenitu ziren arren, gure mozioak aurrera ateratzea lortu zuen, adineko pertsonen edo mugikortasun urriko edo dibertsitate funtzionaleko pertsonen zuzendutako bizikleta egokituen doako zerbitzua abian jartzeari buruz. Neurri honen helburua da **inklusioa sustatzea eta aisialdi osasungarriko aukera berriak eskaintzea** gaur egun bidegorriak bezalako azpiegiturak erabili ezin dituzten horiei. Egokitutako bizikleten maileguaz gain, **ekimenak kultur jarduerak eta paseoak barne hartzen ditu**, gaitutako



boluntarioek lagunduta. Planteatutako aukeren artean, triziklo elektrikoak, gurgil-aulkia akoplazteko aukera ematen duten bizikletak eta lagundutako desplazamendua errazteko pentsatutako beste aukera

batzuk daude. Horregatik, azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela gure bizilagunentzako mugikortasunerantz aurrera egitea, beste udalerrri batzuek arrakastaz egin duten bezala. Horregatik, Udalari es-

katzen diogu eman ditzala zerbitzuaren bideragarritasuna aztertzeko beharrezko urratsak, bultzatuz dezala arlo eskudunetarik eta berma dezala osoko bilkuran adostutako konpromiso hori ez dadila ahantzi.



## GETXOKO UDALAK ISUNA JARRI DIGU PALESTINARI ELKARTASUNA ADIERAZTEAGATIK



Getxoko Udalak zigor ekonomikoa ezarri digu joan den azaroaren 29an, Palestinar Herriarekiko Elkartasunaren Nazioarteko Egunean, egin genuen ekintza artistikoagatik. Palestinako banderarekin horma-irudi bat margotu genuen Algortako Villamonteko eskaileretan, herri palestinarrek jasaten duen genozidioa babestu eta salatuz.

Hiru egun geroago, udal zerbitzuek ezabatu zuten murala. Urte erdi ostean, EAJk eta PSEk osatutako Udal Gobernuak adierazpen artistiko eta solidario horregatik isuna jarri digu.

EH Bildutik erabaki hori salatzen dugu elkartasuna kriminalizatzeko eta Palestinaren aldeko edozein keinu zigortzeko saiakera gisa. Udala ez da gai izan enpatia erakusteko eta gure proposamen guztiak baztertu ditu: mozioak, kontzentrazioak edota laguntza humanitarioko partida bat 2025eko aurrekontuetan.

Beste udalerrri batzuetan Gazako sarraskia salatuz adostasunak lortu diren bitartean, hemen isilarazten gaituzte. Orain zigortzen gaituen Gobernu berak Ukrainaren aldeko ekitaldiak sustatu

zitu. Zergatik ez Palestinarekin?

Tokiko Gobernuaren noraeza deitoratzen dugu, gero eta eskuinagoa eta PPK baldintzatua. Ez dugu ahazten alderdi honek publikoki eskatu zuela gu zigortzea, eta Gazan zibilak hiltzen ari direla zalantzan jartzera iritsi zen Osoko Bilkuran.

Ez gara isilduko. Palestinako genozidioa salatzen eta Palestinako herriari gure babesa erakusten jarraituko dugu.

Palestina askatu, genozidioa gelditu!



## GETXOBONOAK ERABILITA TOKIKO MERKATARITZA BULTZATZEA

PSE-EEK kudeatzen duen Getxoko Udaleko Ekonomia Sustatzeko Sailak tokiko ekonomia eta Getxoko dendak **bultzatu eta indartuko dituzten neurri zehatzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du**. Horren adibide garbia da Getxobono kanpainaren edizio berria, saltoki txikiak erdigunean jartzen dituen ekimena. Udalaren 278.600 euroko inbertsioarekin, kanpaina honen **helburua da Getxoko**

**merkataritzen salmentak dinamizatzea eta tokiko kontsumoa sustatzea**. Lehen fase honetan **5 eta 10 euroko 16.070 bonu** eskainiko dira, ekainaren 17tik izakinak amaitu arte trukatu ahal izango direnak. **5 euroko deskontuak aplikatuko dira 20 eurotik gorako erosketetan** eta 10 eurokoak, ordea, 40 eurotik gorako erosketetan. Pertsona bakoitzak 6 bonu erabili ahal izango ditu gehienez (mota

bakoitzeko 3). Berrikuntza gisa, deskontu horiek eskuratzeko beharrezkoa izango da **maiatzaren 27tik ekainaren 14ra bitartean, gutxienez, 20 euroko erosketa egin izana** atxikitako establezimenduetan. Neurri honen helburua da kanpainaren eragina truke-alditik harago zabaltzea, tokiko saltokietan eragin positibo iraunkorra sortuz.



## UDALEKUAK

Udalbatzak aho batez onartu du udalekuen eskaintzari buruzko informazioa bateratzeko gure mozioa. Gainera, udalekuetan (ludoteka, hiri-udalekuak eta Getxo Kirolak) izena emateko erraztasunak eskura jartzeko Udalaren konpromisoari ekin diogu. Berritoki eskatuko dugu plaza-kopurua handitzeko eta familiei izapidetza errazteko.